

ANALISIA



Bilbao Trick or Treat



Amaia Lekunberri Ansola

@amaialekunberri

ARGAZKIA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

BBK Live, Red Bull Cliff Diving, Europako Errugbi finalak, UEFaren 2020ko Eurokopa, The World's 50 Best Restaurants, Bilbao Bizkaia Pride edo *MTV European Music Awards* bezalako ekimenek betetzen dituzte, sasoi batetik hona, Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kultur agenda eta aurrekontua. Instituziook makro ekimenen sukarrak jota dabilta, sintomak ez dute dudarako tarterik uzten: agintarien ahoak ingelesezko terminologiaz eta Bizkaiko hiriburu turistaz bete dira, eta alde guztietan ikusten duten "inpaktu ekonomikoa" eldarnioaren ondorio izan daitekeela pentsatzeko arrazoiak ere hortxe diraute.

Susmoak areagotu egin dira azken egunotan, maiatzean Bilbon burututako Europako Errugbi finalak izandako inpaktua ez baita heldu esperotako emaitzak betetzera, ez ekonomikoki ez bisitari kopuruari dagokionez. Zenbait ordezkari politikok "itxaropen irrealak" sortzea eta "gardentasunik barik" jardutea egotzi dizkiete, besteak beste, makro ekimenen zale sutsuei. Badirudi bultzatzen dabilta hiri ereduaren gaineko mesfidantza herri mugimenduen eremutik harago hedatu dela.

Gauzak horrela, giroa nahasita harripatu ditu Bilboko Udala eta Bizkaiko

Foru Aldundiaren agendako izarretakoa den ospakizunak, *MTV European Music Awards* delakoak. Musikariak saritzean datzan ekimena azaroaren 4an egingo dute Barakaldoko BECen, eta honek Bizkaiari ekarriko dizkion onurak asetu arte goraiatu badituzte ere -inpaktu ekonomikoa *everywhere*- , ez dute gogo berberarekin azpimarratu 3 milioi euro balio dituen ekimena pribatua dela. Xehetasun horrek sor ditzakeen eztabaiden aurrean nola esku hartu jakin dute ordea, hobekien ematen zaien eran gainera: beste ekimen bat *of course, MTV Music Week Bizkaia*. Ekimen honen baitan, BECeko ekitaldiaren aurreko astean doako kontzertuak egingo dituzte Barakaldo, Durango, Gexto eta Bilbon.

Ekimenok diru publikoaz ordaintzen direnez gero hauen "doakotasuna" eztabaidagarria dela alde batera utzita, ezin ezikusia egin azken eskaintzaren izaera zuritzaileari. Saiakera ederra, baina batek bi begitarte dituen aurpegi garbiketa nekeza izaten da. Jakina baita kulturaren izenean diru publikoa makro ekimenetan xahutzen ari diren horiek direla auzoko jaietarako dirurik ez dagoela esan eta gune autogestio-natuak husten dituztenak, herri honen emari kulturalaren birrikak biak ala biak. Bakoitza aterako ditu kontuak: *Music Week* bat, kultura eskaintza propiorik gabeko *city* baten truke. *Trick or treat*.

EKONOMIAREN TALAIAN

Krisi berri baten bezperatan?



Juan Mari Arregi

Hamar urte bete dira AEBetako Lehman Brothers finantza zerbitzuen konpainiak hondoa jo eta lehenik finantza krisia, ondoren ekonomikoa eta azkenik politikoa eragin zituela. Mundua aldatu eta ondorio katastrofikoak ekarri zituen gertaera hark, batez ere Europako zenbait herrialdetan: enpresen kiebra, milioika enplegu galduta, zenbait banku lur jota, langileen kontrako erreforma antisozialak, prekariedade, desberdintasun eta pobrezia handitzea, miseria... Laburbilduz, gure artean jarraitzen duen kapitalismo basatiaren adierazpena.

Krisiaren erantzuleen zati handi batek (politikariak, enpresariak, finantza adituak...) egungo egoera ekonomikoa aztertu dute, hamarkada bat igaro dela baliatuz. Euren esanetatik ondoriozta litekeena ez da batere itxaropentsua. Adibidez, Europako Banku Zentraleko presidente ohi Jean-Claude Trichet-ek, honela erantzun du Lehman Brotherseko krisia errepikatu ote daitekeen galdetu diotenean: "Ekonomia globala deitu daitekeen zerbait existitzen bada, eta zorpetze globala -publikoa nahiz pribatua- ahultasunaren adierazle onenetako bat baldin bada, orduan krisia lehertu zenean bezain larria da gaurko egoera: adierazle horrek zorpetze maila handiagoa erakusten du BPG globalaren porzentajeari dagokionez". Adituek tesi hori babestu dute, munduko egungo zorpetzeak 2007koa erraz gainditzeko duelako, eta Txina gehitu behar zaiolako, AEBetako baina zor handiagoa baitauka BPGarekiko.

Badirudi kapitalismoak noizean behin krisi bat behar duela zama utzi eta kapitala pilatzen segitzeko, erreforma antisozialekin enplegua suntsitu eta prekarizatuz. Horrela funtzionatzen du egituraz eta errotik basatia den sistema honek.